



## 2008ko Otsailaren 2a UPV/EHUko LEPri buruzko informazioa

1.- LEPen. Ibilbideak epeak betetzen ari da eta eman behar diren hurrengo pausuen datak zehazten ari dira

a) Onartuen behin betiko zerrenden argitaratzea (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

### Otsailaren 1. hamabostaldia

b) Menpekoen eta administrari-laguntzaileen eskaletarako galdera-multzoen argitaratzea. (Onartu bakoitzari liburuxka bat galderekin emango zaio eta onartuek eskuratu ahal izango dute UPV/EHU web orrian ere)

### Otsailaren 1.hamabostaldia

c) Oposaketa faseko azterketen datak

- Deialdi guztietako lehenengo azterketak uda aurretik izango dira, Ekainaren 1. hamabostaldian seguru asko, edozein kasutan abuztuaren aurretik
- Hurrengo azterketen datak deialdi bakoitzeko tribunalak jarriko ditu.

d) Azterketak egiteko egunak

- Menpekoen eta Administrari laguntzaileen eskaletarako igande batean izango omen dira (goizean batzuk eta arratsaldez besteek)
- Beste eskaleentzat, egun berean izatea aurreikusten da baldin eta aurkezten diren pertsona ez badira berdinak eskala desberdinetan.
- Horretarako eskala guztietako azterketak asteburu bitan batuko dira (ostiral arratsaldean, larunbatean eta igandean)

e) Azterketak egingo diren Tokiak

BEC Barakaldo:

- Menpekoen Eskala
- Administrari-laguntzaileen eskala
- Administrari Eskala
- Gestio Teknikarien eskala (Orokorra, Zuzenbidea, Ekonomikak)

Beste eskalak oraindik zehaztu gabe daude tokiak

**2.** Espero zenez ERREKURTSOAK aurkeztu dira LEPen aurka. Oinarri orokorrak ez dira izan errekurrituak, oinarri espezifikoak baizik.

Honako errekurtsu hauek aurkeztu dira:

-ERREKURTSO ADMINISTRATIBOAK. 6 errekurtsu guztira (UPV/EHUKO Gobernu Kontseiluari zuzenduak)

*-Menpekoen Eskala*

Euskarari ematen zaion puntuazioaren aurka

*-Administrari-laguntzaileen eskala*

Beste administrazioetan lan egiteagatik lor daiteken puntuazioaren mugaren aurka

*-Administrari-laguntzaileen eskala*

Ez da zehazten argudiorik

*-Gestio Teknikarien eskala (Aurrezaintzako Teknikariak)*

Eskatzen den titulazioa (Doktore izatea) errekurritzen da

*-Bibliotekako laguntzaileen eskala*

Ez da ezer aipatzen ezta eskatzen ere

*-Gestio teknikarien eskala(Aurrezaintzako Teknikariak eta Medikuntzan Lizentziatuak)*

Eskala honetan aurrezaintzako teknikari edo mediku legez egindako lanak soilik baloratzea eskatzen da

**-ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN bidean.Bost errekurtsu GUZTIRA**

**-Hiru errekurtsuok kautelazko etenaldia eskatzen dute**

*-Menpekoen eskala*

Lehiaketa fasean egindako lanagatik lor daiteken puntuazioa errekurritzen da

*-Administrari-laguntzaileen eskala*

Lehiaketa fasean egindako lanagatik lor daiteken puntuazioa errekurritzen da

*-Gestio Teknikarien eskala(Ikerkuntza Arloa)*

Eskatzen den titulazioa (Doktore izatea) errekurritzen da

**-Beste bi errekurtsuok ez dute eskatzen kautelazko neurririk**

*-Menpekoen eskala*

Lehiaketa fasean egindako lanagatik lor daiteken puntuazioa errekurritzen da

*-Gestio Teknikarien eskala (6 deialdien oinarri espezifikoak )*

Lehiaketa faseko puntuazioa errekurritzen da

Gestio teknikarien eskalaren, Ikerkuntza alorrekoiei, UPV/EHUK zuzenean komunikatu die dagoen errekurtsua (gutxi baitira), nahi izanez gero aurkeztu ahal izateko interesatu bezala prozesuan. Beste eskalako guztiei EHAAen argitaratuko du notifikazioa UPV/EHUK eta nahi duenak aurkeztu ahal izango da interesatu bezala.

2008 Otsailaren 1a